

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Tokiko Gobernu Batzarrek 2026ko apirilaren 24an hartutako erabakiaren laburpena: erabaki horren bidez, Vitoria-Gasteizko udalerrian erabilgarri dauden merkataritza-lokalak dinamizatzeko laguntzen deialdi publikoa eta oinarriak onetsi ziren 2026 ekitaldirako

BDNS(Identif.): 905656.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/905656>).

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>), baita Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean ere <http://www.vitoria-gasteiz.org>.

Lehena. Onuradunak

Establezimendu berria irekitzen duen merkataritza-jardueraren baten titular diren pertsona fisiko nahiz juridikoak, baldintza hauek betez gero:

1. Dirulaguntzaren xede den jarduera lur-arrasean dagoen eta sarrera edo erakusleihu nagusia Vitoria-Gasteizko udalerrian duen lokal batean egin beharko da. Udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeak ere barne daude, eta kanpo, berriz, industrialdeak. Azoketako establezimenduak ere sartzen dira. Kanpo geratzen dira merkataritza-zentro edo -galerietako establezimenduak.

2. Establezimenduan egingo den jarduera ekonomiko berri hori ezin izango da Vitoria-Gasteizko beheko solairuko lokal batean lehendik kokatuta dagoen beste jarduera bat lekuz aldatzearen ondorio (bai, ordea, beste establezimendu mota batzuetan garatutako hirugarren sektoreko jarduerak kalera "jaistea").

Organo kudeatzaileak aurretik zegoen jarduera benetan eta etengabe mantentzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa eskatu ahal izango dio laguntza honen eskatzaileari.

3. Jarduera ekonomiko berri horrek ezin izango du titulartasun-aldaketa izan; aurretik garatutako jarduera aldatu edo eten behar du.

Vitoria-Gasteizko Udaleko Merkataritza Zerbitzuak ofizioz egiaztatuko du aurreko errentariaren eta berriaren arteko jardueraren haustura. Organo kudeatzaileak bi titularren artean jarduera ekonomikoa benetan eten dela egiaztatzen duen dokumentazioa eskatu ahal izango dio laguntza honen eskatzaileari.

Baimenduta dago denbora jarraitutasuna eta jarduera ekonomikoarekin jarraitzea, eta erretiroaren edo heriotzaren ondoriozko belaunaldi-erreleboa gertatzen bada.

4. Onuraduna ezin izango da lokalaren jabe izan. Lokala ezin izango da pertsona juridiko eskatzailearen bazkide batena izan. Era berean, onuradunak ez du bigarren mailara arteko ahaidetarako izan behar (ezkontidea barne) lokalaren jabearekin.

5. Enpresaren jarduera nagusia ekonomia jardueren gaineko zergaren multzo edo epigrafe hauetakoren batekoa izatea:

- 4. saila: manufakturako beste industria batzuk.
- 6. saila: merkataritza, jatetxeak, ostatua, konponketak.
- 7. saila: garraio eta komunikazioak. Bakarrik:
 - 755 Bidaia-agentziak.
 - 76 Telekomunikazioak.
- 8. saila: finantza erakundeak, aseguru etxeak, enpresei eskainitako zerbitzuak eta alokairuak.
- 9. saila: Beste zerbitzu batzuk.

Lanbide-jardueri eta arte-jardueri dagozkien sailak.

6. Dirulaguntzaz baliatu ahal izateko, onuradunak errentamendu-kontratu bat formalizatu beharko du, zeina 2025eko abuztuaren 1etik 2026ko uztailaren 31ra bitartean jarriko baita indarrean.

7. Onuradunak Ekonomia-Jardueren gaineko Zergan (EJZ) alta emanda egon beharko du ireki berri den establezimenduan, 2026ko uztailaren 31 baino lehen.

8. Gehienez 50 lagun enplegatzea eta urteko negozio-bolumenak eta balantze orokorrak 10 milioi euro ez gainditzea.

9. Aurreko betekizunak betetzen ez dituzten enpresekin loturarik ez izatea, edo haiek partaidetza nagusia ez izatea enpresan.

10. Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 11.2. artikuluan jasotako zirkunstantzietako batean ez egotea.

Bigarrena. Xedea

Vitoria-Gasteizko udalerrian erabilgarri dauden merkataritza-lokalen erabilera sustatzeko dirulaguntzak ematea du xede deialdi honek: lehia bidezko konkurrentzia-erregimena baliatuko da horretarako. Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira laguntza ekonomiko hauek.

Hirugarrena. Oinarriak

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak erabaki zuen Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrari hasierako onespina ematea. Behin betiko ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen (88. zenbakia), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean. Ordenantzaren xedea da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko apirilaren 24an onetsi zituen Vitoria-Gasteizko udalerrian erabilgarri dauden merkataritza-lokalak dinamizatzeko laguntzetarako 2026 ekitaldiko udal-programaren deialdiaren oinarriak.

Bata eta bestea Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org) ikus daitezke, bai eta herri-tarrei laguntzeko bulegoetan ere.

Laugarrena. Zenbatekoa

Laguntza deialdi honek 300.000,00 euroko zuzkidura du, 2026rako onetsitako udal aurrekontuko 0822.4314.48969 Merkataritza-lokalak dinamizatzeko laguntzak partidan erabilgarri dagoen saldoaren kontura.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta 2026ko uztailaren 31n amaituko da (egun hori barne).

Vitoria-Gasteiz, 2026ko apirilaren 24a

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta
Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua*
JOSEBA ANDONI GARCÍA-ARDANAZ ARDANAZ